

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA**

959/2019 Foru Agindua, ekainaren 27koa, Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik laguntzak emateko deialdi publikoa onartzeari buruzkoa.

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2019ko ekainaren 27an:

124/2007 Foru Dekretuak, irailaren 25ekoak, Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dizkien diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu zituen. Oinarri arautzaileak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2007ko urriaren 3an.

Diru laguntza horiek emateko urtero deialdi publikoa egingo dela xedatzen du aipatutako foru dekretuak 10. artikuluan. 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Deialdiak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru Laguntzenak, 21.2 artikuluan ezarritako edukia izango du.

Eskaera bera eta eskaerari dagokion dokumentazio osagarria aurkeztuko dira internetez ondorengo araudia betez: 23/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoa, eta 154/2016 Foru Agindua, otsailaren 22koa, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena. Horretarako, sinadura elektronikoa edo gako operatiboa erabiliko dira.

Era berean, aipatutako foru dekretu horren amaierako lehen xedapenak ahalmena ematen dio Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuari Foru Dekretua garatu, interpretatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hori dela eta, foru diputatuak, 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.4.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorriz,

EBAZTEN DU

Lehenengo. Deialdi publikoa onartzea, Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik 2019ko laguntzak emateko.

Bigarren. Baimentzea ehun eta hamazazpi mila (117.000) euroko gastua, aurrekontuko 1.0301.030.461.01.02.2019 partidaren kargura.

Hirugarren. Hondartzetan sorospen zerbitzua emateagatik 2019. urteko ekitaldian gastuak egin dituzten Gipuzkoako itsas ondoko herrietako udalek eskatu ahal izango dituzte diru laguntzak. Laguntza mota horiek emateko arauak ezartzen dituen

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA**

Orden Foral 959/2019, de 27 de junio, por la que se aprueba la convocatoria pública de ayudas a los municipios costeros de Gipuzkoa por la prestación del servicio de salvamento en sus playas.

El diputado foral del Departamento, con fecha 27 de junio de 2019, ha dictado la siguiente orden:

Mediante Decreto Foral 124/2007, de 25 de septiembre, se aprobaron las bases reguladoras de las subvenciones a conceder por la Diputación Foral de Gipuzkoa a los municipios costeros de Gipuzkoa por la prestación del servicio de salvamento en sus playas. Dichas bases fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 3 de octubre de 2007.

El citado decreto foral establece en su artículo 10 que anualmente se realizará una convocatoria pública para el otorgamiento de las ayudas contempladas en el mismo, que tendrá el contenido establecido en el artículo 21.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La presentación de la solicitud y documentación complementaria se realizará vía internet, en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y la Orden Foral 154/2016, de 22 de febrero, del diputado foral de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad. A tal efecto, se utilizará la firma electrónica o la clave operativa.

Asimismo, la disposición final primera del referido decreto foral faculta al diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el correcto desarrollo, interpretación y ejecución del citado Decreto Foral.

En su virtud, este diputado foral, en el ejercicio de las competencias conferidas por el artículo 40.4.b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

RESUELVE

Primero. Aprobar la convocatoria pública de ayudas a los municipios costeros de Gipuzkoa por la prestación del servicio de salvamento en sus playas, correspondiente al ejercicio 2019.

Segundo. Autorizar un gasto por importe de ciento diecisiete mil (117.000) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0301.030.461. 01.02 2019.

Tercero. Podrán solicitar estas ayudas los Ayuntamientos de municipios costeros del Territorio Histórico de Gipuzkoa que durante el año 2019 hayan realizado gastos en la prestación del servicio de salvamento en sus playas, por los conceptos subven-

124/2007 Foru Dekretuak, irailaren 25ekoak, 2. artikuluan zehazten ditu lagungarriak diren kontzeptuak.

Laugarren. Ekitaldi honetarako diru laguntza eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 31n amaituko da.

Bosgarren. Diru laguntza eskaerak ondorengo agiriekin batera aurkeztuko dituzte:

a) Diru laguntza jaso ahal izateko, egindako eta ordaindutako gastuen egiaztapena frogatzen duten agiriak, 124/2007 Foru Dekretuak, irailaren 25ekoak, 12.3. artikuluan ezarri bezala.

b) Burura eraman den ekintzaren azalpen txostena, zer zerbitzu eman diren eta sorospen zerbitzuek hondartzetan zentratu esku-hartze egin duten jasota.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 12.2 artikuluan diru laguntzen onuradun izateko aurreikusitako debekurik ez duela, eta zerga betebeharrak eta Gize Segurantzarekikoak beteta dituela adierazten duena.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste arrerara edo laguntzen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria bilduko dituen.

Seigarren. Kontuan hartuta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (14.2.a artikulua), eskaerak eta eskaerekin batera aurkeztu behar diren gainerako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (<https://www.gfaegoitza.eus>) Erregistro Elektronikoaren bidez soilik aurkeztu daitezke, «diru laguntzen atarira» sartu eta bertan dauden inprimaki espezifikoak betez.

Deialdiei buruzko informazioa eta eskabide-orri normalizatuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuratu daitezke (<https://www.gfaegoitza.eus>).

Zazpigarren. Eskatzaileei gogorarazi behar diegu ezen diru laguntza horien oinarri arautzaileetako 9. artikulua xedatutako arabera, onuradun izan daitezkeenean dituzten betebeharrak dela, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzak jakinaraztea, erakundearen irudi arauak zainduz betiere, diruz lagundutako zerbitzuarekin lotuta egon eta bera eskaintzen duen udal administrazioa identifikatzen den orotan, hau da, diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publikizate egin edo propaganda zabaltzen denean edo baita diruz lagunduta eskuratutako objektuetan ere.

Zortzigarren. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritako arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordetuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bederatzigarren. Diru laguntza hauek bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edo nazioko edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin, haien helburua edo xedea berdina izanik ere. Hala ere, jarduera baterako ematen den diru laguntzaren zenbatekoa, bakarrik nahiz beste diru laguntza batzuekin batera, ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek Foru Agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

cionables que se determinan en el artículo 2 del Decreto Foral 124/2007, de 25 de septiembre, por el que se regula la concesión de estas ayudas.

Cuarto. El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para las ayudas correspondientes a este ejercicio finalizará el 31 de octubre de 2019.

Quinto. Las solicitudes de subvención se presentarán acompañadas de la documentación que se indica a continuación:

a) Documentación acreditativa de los gastos en que se ha incurrido y abonado, según el artículo 12.3 del Decreto Foral 124/2007, de 25 de septiembre.

b) Memoria descriptiva de los servicios prestados y del número de intervenciones realizadas por los servicios de salvamento en playas.

c) Declaración responsable de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria, señaladas en el artículo 12.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Sexto. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, deberán presentarse exclusivamente en el Registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus>), accediendo al «portal de subvenciones» y cumplimentando los formularios específicos disponibles a estos efectos.

La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus>).

Séptimo. Recordar a los solicitantes que de acuerdo con el artículo 9 de las bases reguladoras de estas subvenciones, entre las obligaciones de los eventuales beneficiarios se halla el de hacer constar la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme a las normas de imagen corporativa de la misma, allá donde se identifique la administración municipal prestadora del servicio subvencionado, sean estos bienes subvencionados o publicidad, información o propaganda relativa a la actividad subvencionada.

Octavo. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Noveno. Estas subvenciones serán compatibles con las otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad, si bien el importe total de las subvenciones otorgadas en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella el recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko ekainaren 28a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (4391)

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 28 de junio de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (4391)